

Txostena

Informe

EAEko Udal Erakundeen Kontuak

Cuentas de las Entidades Locales de la CAPV

2009





Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK ETA DEFINIZIOAK	5
AZTERTUTAKO RATIOAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. ONDORIOAK.....	10
II.1 UDALEN KONTUAK	10
II.2 UDALAZ GAINDIKO KONTUAK	13
III. RATIOAK ETA ADIERAZLEAK	15
III.1 UDAL ADIERAZLEAK 09/12/31-N	15
III.2 UDALAZ GAINDIKO ERAKUNDEEN ADIERAZLEAK 09/12/31-N.....	28
ERANTSITAKO LIKIDAZIOAK	
http://www.tvcp.eu/TVCPInfDiagFin/InformeDiagnostico.asp	
ALEGAZIOAK	33
ABREVIATURAS Y DEFINICIONES	37
RATIOS ANALIZADOS.....	37
I. INTRODUCCIÓN	39
II. CONCLUSIONES	42
II.1 CUENTAS MUNICIPALES	42
II.2 CUENTAS SUPRAMUNICIPALES	45
III. RATIOS E INDICADORES.....	48
III.1 INDICADORES MUNICIPALES A 31/12/09.....	48
III.2 INDICADORES DE LAS ENTIDADES SUPRAMUNICIPALES A 31/12/09	61
LIQUIDACIONES AGREGADAS	
http://www.tvcp.eu/TVCPInfDiagFin/InformeDiagnostico.asp	
ANEXOS	67
A.1 ENTIDADES CON CUENTAS AUDITADAS	67
A.2 DEFICIENCIAS DEL ANÁLISIS DE LAS CUENTAS GENERALES	69



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

INFORMACIÓN ECONÓMICO FINANCIERA

<http://www.tvcp.eu/TVCPInfDiagFin/InformeDiagnostico.asp>

- 1 OOAA Y SOCIEDADES PÚBLICAS
- 2 RESUMEN DE LAS LIQUIDACIONES PRESUPUESTARIAS
- 3 RATIOS FINANCIEROS
- 4 EVOLUCIÓN PRINCIPALES MAGNITUDES

ALEGACIONES 79

Vitoria-Gasteiz, 2012eko martzoaren 15a

Vitoria-Gasteiz, 15 de marzo de 2012



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK ETA DEFINIZIOAK

EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia
21/2003 FA	21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoa.
3/2004 FA	3/2004 Foru Araua, otsailaren 9koa, Arabako Lurralde Historikoaren Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoa.
10/2003 FA	21/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoa.
TAOL	7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
TOALTB	2/2004 Legegintzako Errege-Dekretua, martxoaren 5koa, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen Testu Bategina onesten duena.
DG	Diruzaintza geldikina.
GODG	Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina.

AZTERTUTAKO RATIOAK

Zorpetze maila	Finantza zama (Gastuen 3. eta 9. kap. - Birfinantzaketa) / Sarrera arruntak (1etik 5erako kap.) * 100
Aurrezki gordin absolutua	Sarrera arruntak (1etik 5erako kap.) - Funtzionamendu gastuak (1., 2. eta 4. kap.)
Aurrezki gordin erlatiboa	Aurrezki gordin absolutua / Sarrera arruntak (1etik 5erako kap.)* 100.
Aurrezki garbi absolutua	Aurrezki gordin absolutua – [Finantza zama (gastuen 3 eta 9 kap.) – Birfinantzaketa]
Aurrezki garbi erlatiboa	Aurrezki garbi absolutua / Sarrera arruntak (1etik 5erako kap.)* 100
Zorpetze marjina	Balio erlatiboa: 100 – (Finantza zama / Aurrezki gordina * 100)
Batez besteko emaitza arrunta.	Sarrera arruntan batez-b. (1etik 5erako kap.), azken hiru ekitaldietakoak - Gtu. arruntan batez-b. (1etik 4rako kap.), azken hiru ekitaldietakoak.
Kapitalaren batez-b. gtu. garbia	Kapitalaren batez-b. gtu. (6tik 8rako kap.) - Kapitalaren batez-b. sarrerak (6tik 8rako kap.), azken hiru ekitaldietakoak.
Inbertsiorik gabe zorra itzultzeko batez-b. aldia.	(Erabilitako zorra + Gtu. orokor negatiboen geldikina) / azken hiru ekitaldietako batez besteko emaitza arrunta.
Inbertsioarekin zorra itzultzeko batez-b. aldia.	(Erabilitako zorra + Gtu. orokor negatiboen geldikina) / azken hiru ekitaldietako batez besteko emaitza arrunta-kapitalaren batez besteko gastu garbia.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

GODG absolutua	Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikina
GODG erlatiboa	Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikin absolutua / Sarrera arruntak (1etik 5erako kap.)* 100
Gastua guztira	Obligazio aitortuak, gastuen 1etik 9rako kap.
Funtzionamendu gastua	Obligazio aitortuak, gastuen 1., 2. eta 4. kap.
Finantza zama	Obligaz. aitort., 3. eta 9. kap. zorra birfinantz . gastu garbiak
Inbertsioa	Obligazio aitortuak, gastuen 6. eta 7. kap.
Kapitalaren gastu garbia.	Aitortutako eskubideak gastuen 6tik 8rako kap. - Aitortutako eskubideak, sarrerren 6tik 8rako kap.
Benetako inbertsio garbia	Aitortutako obligazioak gastuen 6. kap. - Aitortutako eskubideak, sarrerren 6. kap.
Kapital transferentziak	Eskubide aitortuak, sarrerren 7. kapitulua.
Zorpetze-sarrera.	Eskubide aitortuak, sarrerren 9. kap. - Birfinantzatzea
Kapitalaren gastu garbia. (kapital transf. sarr. gabe).	Aitortutako obligazioak gastuen 6tik 8rako kap. - Aitortutako eskubideak, sarrerren 6tik 8rako kap.
Kapital transf. mendekotasuna	Kapital transferentziak / Kapitalaren gastu garbia (kapital transferentzien sarrerarik gabe)) * 100.
Mailegukerikiko mendetasuna	Zorpetze-sarrera / Kapitalaren gastu garbia (kapital transferentzien sarrerarik gabe)) * 100.
Presio fiskala	Eskubide aitortuak, sarrerren 1etik 3rako kapituluak.
Diru-laguntzek erag. sarrerak	Eskubide aitortuak, sarrerren 4. eta 7. kapituluak.
Bestelako sarrerak	Eskubide aitortuak, sarrerren 5., 6. eta 8. kapituluak.
Sarrerak guztira	Eskubide aitortuak, sarrerren 1etik 9rako kapituluak.
Transferentzia arruntak	Eskubide aitortuak, sarrerren 4. kapitulua.
Sarrera arruntak	Eskubide aitortuak, sarrerren 1etik 5erako kapituluak.
Transf. arruntekiko mendekotasuna	Transferentzia arruntak / Sarrera arruntak * 100.
Jardueraren sarrerak	Eskubide aitortuak, sarrerren 1etik 3rako kapituluak eta sarrerren 5. kapitulua Partzuergoentzat.
Kapital gastuen gaineko diru-lag.	Kapital diru-lag. sarrerak / 6tik 8rako gastuak * 100.



I. SARRERA

Epaitegi honek hezurmamitu duen Lanerako Programa betez, EAEko udalen eta udalaz gaindiko erakundeen 2009ko Kontu Orokorrak aztertu dira ikuspegi formala eta kualitatiboa oinarri hartuta.

Toki Erakundeentzat aurrekontu gaietan estatuko erregulazioa Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak eta Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen Testu Bateginak osatzen dute.

EAEren esparruan Lurralde Historiko bakoitzaren Batzar Nagusiek ebatzitako indarreko arautegia 3/2004 FA, 10/2003 FA eta 21/2003 FA da. Foru Dekretuen bidez garatu dira aurrekontuei buruzko foru arauak Lurralde Historiko bakoitzean eta horietan toki erakundeen aurrekontuaren egitura eta kontabilitate publikoaren plan orokorra onetsi dira. Hiru Lurraldeetako udalen aurrekontu likidazioari eta Kontu Orokorrari dagokion dokumentazioa, Aurrekontuko Foru Arau bakoitzaren 47 eta 62 artikuluek arautzen dute.

Aurreko urteetan egin dugun legez, txosten-diagnostiko hau EAEEn 2009ko ekitaldian zeuden 251 udal administrazioei (ez ditu besarkatzen erakunde autonomoak eta sozietate publikoak) eta udalaz gaindiko 63 erakundeei soil-soilik dagokie.

- 20 partzuergo
- 32 mankomunitate
- 6 kuadrilla
- 5 partzuergo

Kontu globalak (EAEren udalen multzoa eta Lurralde Historikoen araberrako banaketa, eta udalaz gaindiko erakundeen multzoa eta betetako zerbitzu motaren araberrako banaketa) fiskalizatu gabeko likidazioak txertatuzetik eskuratu dira, 243 udalek (% 97) eta udalaz gaindiko 54 erakundek iritsarazi dizkigutenak (% 86). Albizturgo Udalak kontuak epe kanpo bidali ditu eta honenbestez, ez dira finantza analisisetan aintzat hartu. Ikuskatutako kontuak aurkeztu dituzten erakundeak 26 udal eta udalaz gaindiko 10 erakunde dira eta HKEEk, gainera, 8 udal eta udalaz gaindiko 1 erakunde fiskalizatu ditu (ikus A.1).

Aztertutako udal eta udalaz gaindiko erakundeek antolamenduan 112 erakunde autonomo eta 140 udal sozietate publiko besarkatzen dituzte, ondotik erakutsiko dugun laburpenaren arabera. Xehapena ondoko lotunean dago jaso:

<http://www.tvcp.eu/TVCPInfDiagFin/InformeDiagnostico.asp>

	ERAKUNDE KOPURUA	
	ERAK. AUT.	SOZ.PUB.
Udalak:		
ARABA	7	20
BIZKAIA	53	50
GIPUZKOA	50	60
Udalaz gaindikoak:		
Partzuergoak	-	4
Mankomunitateak	2	6
Kuadrillak	-	-
Partzoneriak	-	-
EAE GUZTIRA	112	140

Txosten honetan aurkeztu ditugun ondorioetarako, 2.169.862ko biztanleria hartu da abiaburutzat, eskatutako informazioa igorri duten Euskal Autonomia Erkidegoko 243 udaletan 2009ko urtarrilaren lehen zeuden biztanleak, alegia.

Txosten honetako ondorioak eskuratzeko finkatutako biztanleria mailak honako hauek dira:

	UDAL KOP.	BIZT.KOP. 09/1/1
GERUZA		
> 50.000	6	1.016.059
20.001 - 50.000	12	389.889
10.001 - 20.000	23	337.401
5.001 - 10.000	27	195.394
1.001 - 5.000	83	188.097
< 1.001	92	43.022
EAE GUZTIRA	243	2.169.862
ARABA	46	312.399
BIZKAIA	112	1.152.658
GIPUZKOA	85	704.805

Zerbitzua ematen zaion biztanleria, zerbitzu motaren arabera, honakoa da kontuak prozesatu diren 54 erakundeetan:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

JARDUERA	ERAK. KOPUR.	BIZTANLERIA ARTATUA
1. Ura eta saneamendua	11	1.784.382
2. Udal zerbitzuen kudeaketa	9	914.990
3. Hiriko hondakin solidoak	8	1.448.409
4. Gizarte Ongizatea	8	244.946
5. Arabako Kuadrillak	6	78.158
6. Sustapena eta irakaskuntza, euskara eta lanerako prestak.	6	398.049
7. Partzoneriak eta baso ustiapena	3	49.673
8. Suteak itzaltzea	2	60.391
9. Garraioak	1	764.818

Lana egiteko honako prozedura hauek erabili ditugu:

- 2009ko ekitaldiko Kontu Orokorren analisia. Azterlan hau oinarri izan da Toki Erakundeek, informatzeko betebeharrari dagokionez, legedia zein neurritan betetzen duten zehazteko.
- Udal eta udalaz gaindiko erakunde guztien Balantzeen, Emaizten Kontuen eta aurrekontuaren likidazioaren azterketa berariazkoa; ezargarria zaien arautegian eskatutako informazio osoa barne hartzen dutela eta agiri guztiak elkarren artean koherenteak direla egiaztatu.
- Udal eta udalaz gaindiko erakunde guztien Balantzeen, Emaizten Kontuen eta 2009ko ekitaldiaren likidazioaren azterketa berariazkoa, ekonomia-finantza izaerako adierazleak eskuratzeko.

Udalek eta udalaz gaindiko erakundeek igorritako agirien edukia aztertzean hiru akats mota bereizi ditugu:

- Aurrekontu, aurrekontuen likidazio eta Kontu Orokorra onesteko epeetan eragina dutenak.
- Kontu Orokorra eragiten dutenak, bai eduki formalari dagokionez, bai informazioaren eduki kualitatiboari dagokionez ere.
- Aurreko ekitaldietako Gastu Orokorretarako Diruzaintzako Geldikin negatiboen finantzaketari erreferentzia egiten dietenak.

Erabilitako moneta unitateari dagokionez, txostenaren datu ekonomikoak milako euroetan daude emanak eta hamartarrik ez erakusteko biribildu dira; datuek beti balio zehatz bakoitzaren biribiltzea erakusten dute eta ez biribildutako datuen batuketa.

II. ONDORIOAK

II.1 UDALEN KONTUAK

Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Toki Erakundeek Aurrekontuko Foru Arauek agintzen dute Toki Erakundeek HKEEri Kontu Orokorra aurkeztuko diotela, beren berariazko arautegiak agintzen duen terminoetan behar bezala onetsia; berebat, HKEEren sorrera legearen 9.5 artikulua agintzen du nahitaezkoa dela Epaitegi honi Toki Erakundeek Aurrekontuen likidazioari dagokion dokumentazioa igortzea, egin edo onesten denetik aurrera hilabeteko epean. Aduna, Armiñón, Beizama, Berantevilla, Moreda Araba, Navaridas eta Ekorako Udalek ez dute obligazio hau bete eta Albizturko Udalak epez kanpo igorri du (ikus A.2.1).

Ondotik azalduko ditugun ondorioak EAEren 244 udalek igorritako datuetatik eskuratu dira. Datu horien arabera, EAEko Udalen % 97,21ek aitortzen dizkio kontuak Epaitegi honi.

A.2.1 eranskinean, banaka zehazten dira aztertutako 244 udaletan aurkitutako akatsak. Azpimarratu behar dugu udalerrien % 15,98 egiten duten 39 udaletan ez dela arestian aipatutako eranskinetan zehaztutako hutsetatik batere azaleratu; horietatik 15 Arabako Lurralde Historikoan daude; 16, Bizkaiko Lurralde Historikoan eta 8, Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

Onespen epeak

- 117 udalek aurrekontuak 2009ko lehenengo seihilekoan oniritzi zituzten eta 21ek, berriz, ekitaldiaren bigarren seihilekoan.

Aurrekontua dagokion ekitaldia hasi aurretik onetsi behar da, Lurralde Historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 15.2 artikulua agintzen duenaren arabera. Aztertu ditugun 244 udaletatik % 38,11k bakarrik onetsi ditu 2009ko aurrekontuak ekitaldia hasi aurretik. Hona hemen aurrekontuen onespen aldien arabera sailkatutako udal kopurua:

AURREKONTUEN ONESPENA	UDAL KOPURUA	%
2009/01/1 baino lehenago	93	% 38,11
2009ko 1. hiruhilekoa	71	% 29,10
2009ko 2. hiruhilekoa	46	% 18,85
2009ko 2. seihilekoa	21	% 8,60
Luzatutako aurrekontua	13	% 5,33

- 48 udaletan aurrekontuaren likidazioak indarreko arautegiak agindutako data baino beranduago onetsi dira.

Lurralde Historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 49. artikulua hurrengo ekitaldiko martxoaren 31 ezartzen du Erakundearen Presidenteak onesteko epemuga modura. 244 udalen %79,92ak 2009ko ekitaldiaren aurrekontu likidazioa 2010eko apirilaren 1a baino lehenago onetsi du; gainerako % 20,08ak, berriz, aurrekontuari buruzko arautegiak finkatutako epea urratu du.



Hona hemen aurrekontuen likidazioaren onespén aldien arabera sailkatutako udal kopurua:

LIKIDAZIOAREN ONESPENA	UDAL KOPURUA	%
2010/04/1 baino lehenago	195	% 79,92
2010/04/1 eta 2010/07/31 bitartean.....	34	% 13,93
2010/08/1 eta 2010/12/31 bitartean.....	11	% 4,51
2011/01/1 baino beranduago	3	% 1,23
Ebidentziarik/informaziorik gabe.....	1	% 0,41

- 72 udalek Kontu Orokorra arautegiak agindutako data baino beranduago onetsi dute eta 21 udaletan ez dago erasota Kontu Orokorra onetsi denik.

Lurralde Historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 63. artikulua hurrengo ekitaldiko uztailaren 31 ezartzen du Erakundearen Osokoak onesteko epemuga modura. 244 udalen % 61,89ak Kontu Orokorra arautegiak agintzen duen epean onetsi du. Hona hemen Kontu Orokorra onesteko aldien arabera sailkatutako udal kopurua:

KONTU OROKORRAREN ONESPENA	UDAL KOPURUA	%
2010/08/1 baino lehenago	151	% 61,89
2010/08/1 eta 2010/12/31 bitartean.....	58	% 23,77
2011/01/1 baino beranduago	14	% 5,73
Ez dago erasota onetsi denik	21	% 8,60

Kontu Orokorraren eduki formala

- Hiru udalek ez dute egoeraren balantzea eta emaitzen kontua igorri. Batik bat, 10.000 biztanletik beherako udalerriak dira.
- Hona hemen kontuen edukian beste zenbait akats:

AKATSA	UDAL KOPURUA 2009
Ez da finantzaketa taula barne hartu	12
Ez da udal zorrari buruzko informaziorik jaso	8
Ez da Memoriarik egin.....	49
Ez da Diruzaintza kontua jaso.....	3



Kontu Orokorra, Egoera Balantzeak, Galera-Irabazien Kontuak, Memoriak eta aurrekontuaren likidazioak osatzen dute eta udalak egin duen kudeaketa-lana erakusten du, ekonomia, finantza, ondare eta aurrekontuari dagozkion alderdietan. Kontu Orokorra mamitu eta onartzeko obligazioa hiru Lurralde Historikoen Foru Arauetan dago xedatua eta hala ez egiteak erakunde hauen kudeaketan buru egin behar duen gardentasuna eragiten du.

Kontu Orokorraren eduki kualitatiboa

- Udaletan ezarritako ondare kontabilitateak, kasu ugaritan, oraindik ez du eduki zuzena. Honela, bada, 83 udalek ez dituzte balantzean edo emaitzen kontuan ibilgetuko amortizazioak txertatzen; 6 udalek ez dute kaudimen-gabeziatarako zuzkidura erakusten egoera balantzeko zordunen idazpuruan, nahiz diruzaintzaren geldikinaren kalkuluan barne hartzen dituzten. Balantzean edo emaitzen kontuan ibilgetuaren amortizazioak barne hartzen ez dituzten 83 udaletatik 71, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriei dagozkie.
- Kobragarritasunaren azterlana egin duten udaletatik badira 3 non Diruzaintza Geldikinean deduzitutako kopurua kalkulaturakoa baino txikiagoa den. Gainera, beste 6 udal daude, 24 hilabetetik gorako antzintasuneko kobratzeko zorrak izanik, kobragarritasun azterketarik ez dutenak eta Diruzaintza geldikinetik inongo kopururik deduzitu ez dutenak.
- Hona hemen kontuen edukian beste zenbait akats:

	UDAL KOPURUA
AURREKONTUAREN AKATS KUALITATIBOAK	2009
1. eta 2. kapituluetak sarrerak eta/edo gastuak kutxa irizpidearen arabera erregistratzen dira	16
Oker kalkulaturako aurrekontu emaitza	5
Ez dira kalkulatu ekitaldiko aurrekontuaren emaitzen zuzenketak	2
Oker kalkulaturako diruzaintza geldikina	14
Ez da kalkulatu Geldikina atxikitako finantzaketa duten gastuetarako	5
Diruzaintza Kontuan deskoadreak daude	7
ONDAREAREN AKATS KUALITATIBOAK	2009
Ez du balantzearen aktiboak eta pasiboak koadratzen	1
Balantzean ibilgetuko kontu-sail negatiboak	16
Zorraren eranskina ez dator bat balantzearekin	40
Balantzean kaudimen-gabeziatarako zuzk. diruz. geldikinarena baino txikiagoa	2

Gastu orokor negatiboetarako Diruzaintza Geldikinaren finantzaketa

- 07/12/31n gastu orokorretarako geldikin negatiboa zuten 27 udaletatik 8 udalek ez dute 09/12/31n hori finantzatu, Lurralde Historiko bakoitzaren Toki Erakundeen Aurrekontuko Foru Arautegiaren 49.4 artikulua urratuz.
- 2007ko ekitaldiaren geldikin negatiboak finantzatu dituzten 19 udalek honako modu honetan egin dute:



- 16 udalek aurrekontuaren gastuko kontu-sailak murriztuta.
- 2 udalek 2008an edo 2009an geldikin positiboak eskuratuta, aurreko saldo negatiboa berdindu dutenak.
- 1 udaletan, bestelako finantzaketa moldeak baliatuta.

II.2 UDALAZ GAINDIKO KONTUAK

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea, Debade Udal Euskaltegien Mankomunitatea, Entziako Partzuergoa, Iturrietako Partzuergoa eta Uli Mankomunitatea erakundeek ez dituzte 2009ko ekitaldiari dagozkion kontuak igorri eta Lurralde Historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 63.5 artikulua urratu dute. Gainera, ezinezkoa izan da ondotik adierazitako erakundeen kontuak barne hartzea, indarreko legeriak agintzen duenarekiko bat datozen egiturak ez izateagatik: Iruña Okako Uren Partzuergoaren kontuak, Gastronomiako Euskal Museoa Partzuergoarenak, Kuartangoko Uren Partzuergoarenak eta Ekialdeko Lautadako Uren Partzuergoarenak.

Ondotik azalduko ditugun ondorioak EAEren udalaz gaindiko 54 erakundek igorritako datuetatik eskuratu ditugu.

A.2.2 eranskinean zehazten dira udalaz gaindiko erakunde bakoitzean aurkitutako akatsak. Azpimarratu behar dugu udalerrien % 18,52 egiten duten 10 udalaz gaindiko erakundetan ez dela arestian aipatutako eranskinetan zehaztutako hutsetatik batere azaleratu; horietatik 3 Bizkaiko Lurralde Historikoan daude; 2, Gipuzkoako Lurralde Historikoan eta 5, Arabako Lurralde Historikoan.

Onespen epeak

- 19 erakundetan aurrekontuak 2009ko lehenengo sei hilekoan onartu zituzten. Aurrekontua dagokion ekitaldia hasi aurretik onetsi behar da, Lurralde Historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 15.2 artikulua agintzen duenaren arabera. Aztertu ditugun EAEren udalaz gaindiko 54 erakundeetatik % 57,40k bakarrik onetsi ditu 2009ko aurrekontuak ekitaldia hasi aurretik. Hona hemen aurrekontuen onespen aldien arabera sailkatutako udal kopurua:

AURREKONTUEN ONESPENA	ERAKUNDE KOPURUA	%
2009/01/1 baino lehenago	31	% 57,40
2009ko 1. hiruhilekoa	11	% 20,37
2009ko 2. hiruhilekoa	8	% 14,81
2009ko 2. sei hilekoa	2	% 3,70
Luzatutako aurrekontua	2	% 3,70

- Hamabost erakundek aurrekontu-likidazioa aurrekontu-arautegiak agintzen duen data baino beranduago onetsi zuten. Lurralde Historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 49. artikulua hurrengo ekitaldiko martxoaren 31 ezartzen du Erakundearen Presidenteak



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

onesteko epemuga modura. Udalaz gaindiko 54 erakundeek % 72,22ak 2009ko ekitaldiaren aurrekontu likidazioa 2010eko apirilaren 1a baino lehenago onetsi du. Ondotik, udalaz gaindiko erakundeek aurrekontuaren likidazioa zein alditan onetsi duten erakutsiko dugu:

LIKIDAZIOAREN ONESPENA	ERAKUNDE KOPURUA	%
2010/04/1 baino lehenago	39	% 72,22
2010/04/1 eta 2010/07/31 bitartean.....	11	% 20,37
2010/08/1 eta 2010/12/31 bitartean.....	4	% 7,41

- 18 erakundetara Kontu Orokorra aurrekontu-arauegiak agindutako data baino beranduago onetsi zen eta 4 erakundetara ez dago erasota onartu dutenik. Lurralde Historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 63. artikulua hurrengo ekitaldiko uztailearen 31 ezartzen du Erakundearen Osokoak onesteko epemuga modura. Udalaz gaindiko 32 erakundeek baizik ez dute Kontu Orokorra indarreko aurrekontu-arauegiak emandako epean onetsi; horiek udal guztien % 59,26 egiten dute. Kontu Orokorren onespenez aldiak honako hauek dira:

KONTU OROKORRAREN ONESPENA	ERAKUNDE KOPURUA	%
2010/08/1 baino lehenago	32	% 59,26
2010/08/1 eta 2010/12/31 bitartean.....	16	% 29,63
2011/01/1 baino beranduago	2	% 3,70
Ez dago erasota onetsi denik	4	% 7,41

Kontu Orokorren eduki formalak

- Hiru erakundeek ez dute ez balantzerik, ez emaitzen konturik aurkezten; 4k ez dute finantzaketa taularik barne hartzen eta 13k ez dute oroitidazkirik jasotzen.
- Hona hemen kontuen edukian beste zenbait akats:

AKATSAK	ERAKUNDE KOPURUA	2009
Ez da udal zorrari buruzko informaziorik jaso.....		6
Ez da Aurrekontu Emaitzaren kalkulua jaso.....		1

Kontu Orokorren eduki kualitatiboa

- Gainera, 14 erakundeek ez dituzte balantzean edo emaitzen kontuan ibilgetuko amortizazioak jaso; akats hori zuzendu egin behar da finantza egoerak ondare egoera zuzen isla dezaten.
- Udalaz gaindiko 2 erakundeek, 24 hilabetetik gorako antzinatasuneko zorrak dituztenak, ez dute kobragarritasunaren azterlanik.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Hona hemen kontuen edukian beste zenbait akats:

	ERAKUNDE KOPURUA
AURREKONTUAREN AKATS KUALITATIBOAK	2009
1. eta 2. kapituluetak sarrerak eta/edo gastuak kutxa irizpidearen arabera erregistratzen dira	4
Ez dira kalkulatu ekitaldiko aurrekontuaren emaitzen zuzenketak.....	1
Oker kalkulatu diruzaintza geldikina	4
Ez da kalkulatu Geldikina atxikitako finantzaketa duten gastuetarako	2
ONDAREAREN AKATS KUALITATIBOAK	2009
Balantzean ibilgetuko kontu-sail negatiboak.....	1
Zorraren eranskina ez dator bat balantzearekin.....	2

Gastu orokor negatiboetarako Diruzaintza Geldikinaren finantzaketa

07/12/31n gastu orokorretarako geldikin negatiboak zituzten udalaz gaindiko 3 erakundeetatik, Su-itzaltze eta Aurreikuspen eta Salbamendurako Partzuergoak baizik ez ditu 09/12/31n finantzatu eta honek Arabako Lurralde Historikoaren Toki Erakundeen Aurrekontuko Foru Arauaren 49.4 art. urratzen du.

III. RATIOAK ETA ADIERAZLEAK

III.1 UDAL ADIERAZLEAK 09/12/31-N

Udal adierazleak kalkulatzeko aztergai izan ditugun 243 udalen aurrekontu-likidazioei dagozkien datuak erabili dira. Adierazleak eta eskuratutako likidazioen laburpenak, banaka jaso ditugu ondoko lotunean:

<http://www.tvcp.eu/TVCPInfDiagFin/InformeDiagnostico.asp>

III.1.1 ZORPETZE MAILA

Finantza zama ordaintzeko erabili behar den sarrera arrunten ehunekoa adierazten du. Udalen arteko datuak berdintzearen, udalerriek 09/12/31n erabilitako zorra soilik hartu da gogoan. Hona hemen biztanleko, biztanleria geruzako, erabilitako zorraren batez besteko kopuruak:

	UDAL KOPUR.	2008/12/31-N ERABILI- TAKO ZORPETZEA	Euroak/biztanleko ZORPETZE MAILA
GERUZA			
ARABA			
>50.000	1	465	% 2,32
20.001-50.000	-	-	-
10.001-20.000	2	101	% 2,13
5.001-10.000	-	-	-
1.001-5.000	19	414	% 3,85
<1.001	24	238	% 3,85
ARABA BATEZ BESTE	46	417	% 2,51
BIZKAIA			
>50.000	3	94	% 2,38
20.001-50.000	8	37	% 1,65
10.001-20.000	8	161	% 1,53
5.001-10.000	14	190	% 1,78
1.001-5.000	40	305	% 4,51
<1.001	39	250	% 3,30
BIZKAIA BATEZ BESTE	112	116	% 2,28
GIPUZKOA			
>50.000	2	524	% 5,30
20.001-50.000	4	411	% 5,25
10.001-20.000	13	354	% 5,70
5.001-10.000	13	359	% 8,11
1.001-5.000	24	555	% 8,72
<1.001	29	571	% 8,11
GIPUZKOA BATEZ BESTE	85	443	% 6,07
EAE			
>50.000	6	284	% 3,04
20.001-50.000	12	143	% 2,62
10.001-20.000	23	264	% 3,89
5.001-10.000	27	268	% 4,57
1.001-5.000	83	402	% 5,53
<1.001	92	333	% 4,65
EAE BATEZ BESTE	243	265	% 3,48

EAEren batez besteko erabilitako zorra biztanleko 265 eurokoa da. 28 udal daude 09/12/31n erkidegokoaren batez bestekoaren zorra baino nabarmen handiagoa dutenak (810 eta 3.071 euro bitartean biztanleko).



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

72 udalek ez dute erabilitako zorpetzerik 09/12/31n eta horietatik 38 1.000 biztanletik beherako biztanleria geruzan daude.

III.1.2 AURREZKI GORDINA, AURREZKI GARBIA ETA ZORPETZE MARJINA

Aurrezki gordinak finantzazkoak ez diren gastu arruntei behin aurre egin ondoren erabilgarri geratzen den sarrera arrunten atala erakusten du.

Aurrezki garbiak finantza zamaren ordainketari aurre egin ondoren geratzen den aurrezki gordinaren atala islatzen du. Berezko baliabideekin inbertsioak finantzatzeko udalak duen gaitasuna erakusten du.

Zorpetze marjinak finantza zama ordaindu ondoren erabilgarri geratzen den aurrezki gordinaren proportzioa jasotzen du, hau da, autofinantziazioa.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak/biztanleko

GERUZA	UDAL KOP.	___AURREZKI GORDINA___		___ AURREZKI GARBIA ___		ZORPETZE MARJINA
		ABSOLUTUA	ERLATIBOA	ABSOLUTUA	ERLATIBOA	
ARABA						
>50.000	1	(33)	(% 2,44)	(65)	(% 4,75)	-
20.001-50.000	-	-	-	-	-	-
10.001-20.000	2	90	% 6,89	62	% 4,76	% 41,43
5.001-10.000	-	-	-	-	-	-
1.001-5.000	19	150	% 12,66	104	% 8,81	% 52,20
<1.001	24	115	% 10,53	73	% 6,68	% 54,16
ARABA BATEZ BESTE	46	5	% 0,37	(28)	(% 2,14)	% 51,62
BIZKAIA						
>50.000	3	146	% 11,55	116	% 9,17	% 52,19
20.001-50.000	8	146	% 12,90	128	% 11,25	% 81,26
10.001-20.000	8	130	% 11,67	113	% 10,14	% 85,51
5.001-10.000	14	254	% 19,74	231	% 17,95	% 62,25
1.001-5.000	40	109	% 8,62	52	% 4,11	% 50,30
<1.001	39	271	% 17,93	221	% 14,63	% 66,54
BIZKAIA BATEZ BESTE	112	153	% 12,53	125	% 10,25	% 62,22
GIPUZKOA						
>50.000	2	66	% 5,43	2	% 0,13	% 14,28
20.001-50.000	4	69	% 6,48	13	% 1,23	% 20,12
10.001-20.000	13	96	% 8,52	32	% 2,82	% 30,20
5.001-10.000	13	132	% 11,25	37	% 3,14	% 37,07
1.001-5.000	24	93	% 8,63	(1)	(% 0,09)	% 33,83
<1.001	29	192	% 15,26	90	% 7,15	% 37,60
GIPUZKOA BATEZ BESTE	85	87	% 7,57	17	% 1,50	% 33,95
EAE						
>50.000	6	85	% 6,66	46	% 3,63	% 30,85
20.001-50.000	12	124	% 11,16	95	% 8,54	% 60,88
10.001-20.000	23	108	% 9,46	63	% 5,57	% 50,41
5.001-10.000	27	197	% 15,99	141	% 11,42	% 50,12
1.001-5.000	83	112	% 9,40	46	% 3,87	% 45,97
<1.001	92	207	% 15,59	145	% 10,94	% 54,19
EAE BATEZ BESTE	243	111	% 9,09	68	% 5,61	% 50,33

Aurrezki gordinak edozein modutara finantza zamaren pareko edo handiagoa izan behar du, izan ere, bestela udalak ezingo lioke zama honen ordainketari aurre egin eta ez luke inbertsioetarako autofinantzaketarik izango. Honek guztiak esan nahi du 38 udal daudela aurrezki garbi negatiboa erakusten dutenak.



Aurrezki garbiak positiboa izan behar du, kapitalezko sarrerak ez daitezen gastu arruntak finantzatzeko erabil. Aztertutako ekitaldian, aurrezki gordin negatiboa erakusten duten 37 udal daude eta 37 udaletan finantza zamak aurrezki gordina gainditzen du.

Honek guztiak esan nahi du 75 udal daudela aurrezki garbi negatiboa erakusten dutenak. Aurrezki gordina negatiboa duten suposamendu horietan edota finantza zama hau baino handiagoa denetan zorpetzeko marjinarik batere ez dutela aintzat hartuta, 75 udal hauen autofinantzaketarako gaitasuna zerokoa da.

III.1.3 ZORRA ITZULTZEKO BATEZ BESTEKO ALDIA

Inbertsioa eginez eta inbertsiorik gabe zorra itzultzeko batez besteko aldia aztertu dugu. Zorra amortiza daitekeen ekitaldi kopurua erakusten du eta gastu orokorretarako geldikin negatibo saneatua, segun eta emaitza arrunt guztia helburu horretarako erabiltzen den edota etorkizunean inbertsio garbiari eusten zaion.

Batez besteko emaitza arruntak 2007-2009 aldian udalek euren gastu arruntei aurre egin ondoren eskuratutako urteko batez besteko soberakina erakusten du eta inbertsioak finantzatzeko eta/edo zorraren amortizazioei aurre egiteko erabil daiteke. Kapitalaren batez besteko gastuak, berriz, udalek aldi horretan egin duten urteko batez besteko inbertsioa erakusten du, diru laguntza eta aparteko diru-sarreretatik garbi.

Euroak milakotan					
GERUZA	UDAL KOPURUA	BATEZ-B. EMAIT.ARR.	KAPITALEKO BAT.B. GASTU GARBIA	ZORRA ITZULTZEKO BAT. INBERTS.GABE(*)	BESTEKO ALDIA INBERTSIOAR.(*)
>50.000	6	214.391	249.143	1,35	E/E
20.001-50.000	12	82.439	64.305	0,70	3,18
10.001-20.000	23	68.255	68.591	1,31	E/E
5.001-10.000	27	48.404	42.423	1,13	9,11
1.001-5.000	83	42.022	47.842	2,09	E/E
<1.001	92	13.573	13.778	1,24	E/E
EAE BATEZ BESTE	243	469.084	486.082	0,86	3,67
ARABA	46	39.283	76.586	3,41	E/E
BIZKAIA	112	318.583	264.870	0,45	2,70
GIPUZKOA	85	111.218	144.626	2,84	E/E

(*) Ekitaldi kopurua

E/E: Ez da ezargarria adierazlea negatiboa den kasuan.

Aurreko ratioen azterketa banakakoetatik ikus daiteke 8 udalek soilik dutela batez besteko emaitza arrunt negatiboa 2007-2009 aldian.

2009ko abenduaren 31n 39 udalek hurrengo ekitaldietan inbertsio garbirik ez eginda ere, zorra itzultzeko 3 urtetik gorako epea beharko lukete.



III.1.4 GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINNTZA-GELDIKINA

Aurreko ekitaldietan eskuratutako soberakinak erakusten ditu, datozen ekitaldietako aurrekontuen finantzaketa iturri izan daitezkeenak. Balio erlatiboetan, Geldikin horrek sarrera arrunt guztien gainean izan dezakeen pisua jasotzen du.

GERUZA	UDAL KOP.	Euroak/biztanleko	
		ABSOLUTUA	ERLATIBOA
ARABA			
>50.000	1	76	% 5,56
20.001-50.000	-	-	-
10.001-20.000	2	327	% 24,98
5.001-10.000	-	-	-
1.001-5.000	19	197	% 16,65
<1.001	24	303	% 27,81
ARABA BATEZ BESTE	46	122	% 9,14
BIZKAIA			
>50.000	3	134	% 10,62
20.001-50.000	8	498	% 43,88
10.001-20.000	8	366	% 32,85
5.001-10.000	14	431	% 33,50
1.001-5.000	40	293	% 23,05
<1.001	39	404	% 26,80
BIZKAIA BATEZ BESTE	112	291	% 23,78
GIPUZKOA			
>50.000	2	61	% 5,05
20.001-50.000	4	78	% 7,38
10.001-20.000	13	354	% 31,39
5.001-10.000	13	359	% 30,68
1.001-5.000	24	236	% 22,04
<1.001	29	379	% 30,13
GIPUZKOA BATEZ BESTE	85	200	% 17,37
EAE			
>50.000	6	103	% 8,08
20.001-50.000	12	379	% 33,99
10.001-20.000	23	356	% 31,28
5.001-10.000	27	398	% 32,26
1.001-5.000	83	257	% 21,54
<1.001	92	370	% 27,88
EAE BATEZ BESTE	243	237	% 19,50

Guztira 46 udalek Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikin negatiboa dute. Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikin negatiboak erakusten du udalak bere ahalmenez gainetik gastatu duela, hurrengo ekitaldietan zuzendu beharko den defizita sortuz, indarreko aurrekontuaren arautegian ezarritakoari jarraiki.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Hona hemen biztanleria geruza eta Lurralde Historikoaren arabera sailkatua:

GERUZA	UDAL KOP.	GERUZAREN GUZTIZK. G. %
20.001-50.000	1	% 8,33
10.001-20.000	1	% 4,35
5.001-10.000	3	% 11,11
1.001-5.000	20	% 24,10
<1.001	21	% 22,83
EAE GUZTIRA	46	14,34%
ARABA	14	% 30,43
BIZKAIA	22	% 19,64
GIPUZKOA.....	10	% 11,76



III.1.5 AURREKONTUKO ADIERAZLEAK

III.1.5.1 GASTU ADIERAZLEAK

Hona hemen kalkulatu diren adierazleak:

GERUZA	Euroak/biztanleko				
	UDAL KOP.	FUNTZIONAMENDU GASTUA	FINANTZA ZAMA	INBERTSIOA	GASTUA GUZTIRA
ARABA					
>50.000	1	1.401	32	436	1.870
20.001-50.000	-	-	-	-	-
10.001-20.000	2	1.218	28	507	1.755
5.001-10.000	-	-	-	-	-
1.001-5.000	19	1.033	46	757	1.837
<1.001	24	975	42	1.037	2.054
ARABA BATEZ BESTE	46	1.325	33	503	1.863
BIZKAIA					
>50.000	3	1.119	30	474	1.636
20.001-50.000	8	988	19	464	1.475
10.001-20.000	8	983	17	480	1.481
5.001-10.000	14	1.033	23	727	1.787
1.001-5.000	40	1.160	57	815	2.052
<1.001	39	1.238	50	1.425	2.713
BIZKAIA BATEZ BESTE	112	1.071	28	539	1.647
GIPUZKOA					
>50.000	2	1.150	64	683	1.899
20.001-50.000	4	993	56	516	1.571
10.001-20.000	13	1.033	64	585	1.689
5.001-10.000	13	1.038	95	607	1.744
1.001-5.000	24	980	93	621	1.708
<1.001	29	1.067	102	1.061	2.243
GIPUZKOA BATEZ BESTE	85	1.064	70	622	1.762
EAE					
>50.000	6	1.192	39	516	1.754
20.001-50.000	12	990	29	478	1.502
10.001-20.000	23	1.031	44	541	1.620
5.001-10.000	27	1.035	56	671	1.767
1.001-5.000	83	1.081	66	745	1.906
<1.001	92	1.120	62	1.221	2.407
EAE BATEZ BESTE	243	1.105	42	561	1.715

III.1.5.2 INBERTSIOAREN ADIERAZLEAK

a. Inbertsioa

Hona hemen inbertsioei eta horien diru laguntza bidezko finantzaketari buruz kalkulaturako adierazleak, biztanleko eurotan emanak:

	Euroak/biztanleko		
GERUZA	UDAL KOP.	KAPITAL GASTU GARBIA	EGIAZKO INBERTS. GARBIA
ARABA			
>50.000	1	221	366
20.001-50.000	-	-	-
10.001-20.000	2	233	486
5.001-10.000	-	-	-
1.001-5.000	19	246	694
<1.001	24	16	797
ARABA BATEZ BESTE	46	217	431
BIZKAIA			
>50.000	3	265	386
20.001-50.000	8	152	423
10.001-20.000	8	210	414
5.001-10.000	14	252	579
1.001-5.000	40	260	693
<1.001	39	341	1.367
BIZKAIA BATEZ BESTE	112	231	457
GIPUZKOA			
>50.000	2	196	526
20.001-50.000	4	225	386
10.001-20.000	13	208	446
5.001-10.000	13	139	412
1.001-5.000	24	246	530
<1.001	29	354	957
GIPUZKOA BATEZ BESTE	85	203	475
EAE			
>50.000	6	238	415
20.001-50.000	12	173	413
10.001-20.000	23	211	438
5.001-10.000	27	199	501
1.001-5.000	83	253	644
<1.001	92	256	1.101
EAE BATEZ BESTE	243	220	460

2009ko ekitaldian zehar, 6 udalek benetako inbertsio garbi negatiboa izan dute (egindako inbertsioak besterentzeak kenduta), eta horrek Diruzaintzako Geldikin ez erabilgarriak sortu ditu, hurrengo ekitaldietan kapital gastuetarako erabili behar direnak. Finantzaketa desbideratzeak behar bezala kontrolatzeak duen garrantzia azpimarratu behar dugu, hala



hainbat sarrerak erabilera jakina izatera behartzen duen arautegia betetzeko, nola Diruzaintzako Geldikinaren erabilera desegokiak gerora finantza tentsiorik ez sortzeko.

Gainera, 36 udalek egindako kapital gastuak baino kapital sarrera handiagoak eskuratu dituzte (6, 7 eta 8 kapituluak batera), eta, beraz, geldikinen zati bat atxikitako gastuak finantzatzeko erabili beharko dute. Egoera hori gertatzen da, oro har, inbertsioen besterenganatzea nahiz kapitaleko diru laguntzen sarrerak subentzionatutako lanen exekuzioek ez bezalako erritmoan burutzen direlako.

b. Kapital transferentziekiko eta mailegukiko mendekotasun maila

Kapital transferentziek balore absolutuetan beste erakunde batzuetatik datozen kapitalezko transferentzia kontzeptuan aitortutako eskubideen zenbatekoa jasotzen dute. Kapitalezko transferentzien mendekotasun mailak transferentzia horiekin finantzatu den kapitaleko gastu garbiaren ehunekoia jasotzen du.

Maileguk balore absolutuetan, jasotako maileguen kontzeptuan aitortutako eskubideen zenbatekoa barne hartzen dute. Maileguen mendekotasun mailak mailegu horiekin finantzatu den kapitaleko gastu garbiaren ehunekoia erakusten du.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

	Euroak/biztanleko					
GERUZA	UDAL KOP.	KAPITALAREN TRANSFER.	ZORP.SARR.	KAPITALAREN GTU.GARBIA (*)	TRANSF.EKIKO MENDEKOTAS.	MAILEG.EKIKO MENDEKOTAS.
ARABA						
>50.000	1	207	199	428	% 48,36	% 46,50
20.001-50.000	-	-	-	-	-	-
10.001-20.000	2	272	-	505	% 53,86	-
5.001-10.000	-	-	-	-	-	-
1.001-5.000	19	447	76	693	% 64,50	% 10,97
<1.001	24	941	41	957	% 98,33	% 4,28
ARABA BATEZ BESTE	46	269	160	486	% 55,35	% 32,92
BIZKAIA						
>50.000	3	197	15	462	% 42,64	% 3,25
20.001-50.000	8	284	61	435	% 65,29	% 14,02
10.001-20.000	8	207	10	417	% 49,64	% 2,40
5.001-10.000	14	335	43	587	% 57,07	% 7,33
1.001-5.000	40	462	62	723	% 63,90	% 8,58
<1.001	39	1.026	47	1.367	% 75,05	% 3,44
BIZKAIA BATEZ BESTE	112	268	33	499	% 53,71	% 6,61
GIPUZKOA						
>50.000	2	193	230	389	% 49,61	% 59,13
20.001-50.000	4	200	154	426	% 46,95	% 36,15
10.001-20.000	13	305	185	514	% 59,34	% 35,99
5.001-10.000	13	263	120	402	% 65,42	% 29,85
1.001-5.000	24	336	191	582	% 57,73	% 32,82
<1.001	29	642	248	996	% 64,46	% 24,90
GIPUZKOA BATEZ BESTE	85	252	189	455	% 55,38	% 41,54
EAE						
>50.000	6	198	110	436	% 45,41	% 25,23
20.001-50.000	12	260	88	433	% 60,05	% 20,32
10.001-20.000	23	267	107	478	% 55,86	% 22,38
5.001-10.000	27	302	79	501	% 60,28	% 15,77
1.001-5.000	83	421	104	675	% 62,37	% 15,41
<1.001	92	900	100	1.156	% 77,85	% 8,65
EAE BATEZ BESTE	243	263	102	483	% 54,45	% 21,12

(*) Kapital transferentzien sarrerarik gabe

Arau orokor modura, kapital diru-laguntzen bolumena udalerrietako biztanleriaren tamainarekiko alderantziz proportzionala da.

Diru-laguntza bitartez finantzatutako kapital gastuen ehuneka aztertu dugu eta hortik ateratzen da 73 udaletan kapital diru laguntzek eragindako sarrerek kapital gastuen % 80 baino gehiago finantzatzen dutela, EAeren batez bestekoa baino askoz ehuneko handiagoa dena (% 54,45) eta 5 udaletan ehuneko negatiboa dela, gehienek kapitalezko gastu garbia ere negatiboa dutelako.

Mailegu bitartez finantzatutako kapitalezko gastu garbien ehuneko aztertu dugu eta hortik ateratzen da 19 udaletan maileguez eragindako sarrerek kapital gastuen % 50 baino



gehiago finantzatzen dutela, EAEren batez bestekoa baino askoz ehuneko handiagoa dena (% 21,12) eta 147 udaletan portzentaje hau nulua edo negatiboa dela.

III.1.5.3 SARREREN ADIERAZLEAK

Hona hemen kalkulatu diren adierazleak:

	Euroak/biztanleko					
GERUZA	UDAL KOP.	PRESIO FISKALA	DIRU-LAG. SARRERAK	BESTELAKO SARRERAK	ZORPETZE SARRERAK	SARRERAK GUZTIRA
ARABA						
>50.000	1	596	921	67	199	1.783
20.001-50.000	-	-	-	-	-	-
10.001-20.000	2	483	1.058	44	-	1.585
5.001-10.000	-	-	-	-	-	-
1.001-5.000	19	559	1.050	86	76	1.771
<1.001	24	538	1.422	151	41	2.152
ARABA BATEZ BESTE	46	580	967	70	160	1.777
BIZKAIA						
>50.000	3	457	982	48	15	1.502
20.001-50.000	8	421	954	76	61	1.512
10.001-20.000	8	432	876	76	10	1.394
5.001-10.000	14	593	991	182	43	1.809
1.001-5.000	40	524	1.178	122	62	1.886
<1.001	39	404	2.060	129	47	2.640
BIZKAIA BATEZ BESTE	112	463	1.000	77	33	1.573
GIPUZKOA						
>50.000	2	595	794	315	230	1.934
20.001-50.000	4	478	775	107	154	1.514
10.001-20.000	13	510	896	106	185	1.697
5.001-10.000	13	522	866	253	120	1.761
1.001-5.000	24	456	934	71	191	1.652
<1.001	29	442	1.410	127	248	2.227
GIPUZKOA BATEZ BESTE	85	531	849	196	189	1.765
EAE						
>50.000	6	523	922	117	110	1.672
20.001-50.000	12	437	903	84	88	1.512
10.001-20.000	23	480	903	90	107	1.580
5.001-10.000	27	560	933	215	79	1.787
1.001-5.000	83	510	1.080	100	104	1.794
<1.001	92	450	1.711	135	100	2.396
EAE BATEZ BESTE	243	502	946	115	102	1.665

Presio fiskalak zerga zuzen, zehar zerga, tasa eta bestelako sarrerren zenbatekoa barne hartzen du, biztanle kopuruaren artean zati-banatua. Adierazle hau udalerraren gaitasun fiskalaren, ordenantzetan jasotako tarifen eta kudeaketaren eraginkortasunaren arabera da.

III.1.5.4 TRANSFERENTZIA ARRUNTEKIKO MENDEKOTASUNA

Beste erakunde batzuetatik etorritako transferentzia arrunten kontzeptuan dagoen diru-sarrera ehunekoa jasotzen du. Sarrera arruntek transferentzia arruntekiko duten mendekotasun maila erakusten du.

	Euroak/biztanleko			
GERUZA	UDAL KOP.	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	SARRERA ARRUNTAK	TRANSF. ARRUNT. MENDEKOTAS.
ARABA				
>50.000	1	714	1.368	% 52,19
20.001-50.000	-	-	-	-
10.001-20.000	2	786	1.309	% 60,05
5.001-10.000	-	-	-	-
1.001-5.000	19	603	1.183	% 50,97
<1.001	24	481	1.090	% 44,13
ARABA BATEZ BESTE	46	698	1.330	%52,48
BIZKAIA				
>50.000	3	785	1.266	% 62,01
20.001-50.000	8	670	1.135	% 59,03
10.001-20.000	8	669	1.113	% 60,11
5.001-10.000	14	656	1.287	% 50,97
1.001-5.000	40	716	1.269	% 56,42
<1.001	39	1.034	1.509	% 68,52
BIZKAIA BATEZ BESTE	112	732	1.224	% 59,80
GIPUZKOA				
>50.000	2	602	1.216	% 49,51
20.001-50.000	4	574	1.062	% 54,05
10.001-20.000	13	591	1.129	% 52,35
5.001-10.000	13	603	1.170	% 51,54
1.001-5.000	24	598	1.072	% 55,78
<1.001	29	768	1.259	% 61,00
GIPUZKOA BATEZ BESTE	85	597	1.152	% 51,82
EAE				
>50.000	6	724	1.277	% 56,70
20.001-50.000	12	643	1.114	% 57,72
10.001-20.000	23	635	1.138	% 55,80
5.001-10.000	27	631	1.232	% 51,22
1.001-5.000	83	658	1.193	% 55,16
<1.001	92	811	1.327	% 61,12
EAE BATEZ BESTE	243	683	1.216	% 56,17



III.2 UDALAZ GAINDIKO ERAKUNDEEN ADIERAZLEAK 09/12/31-N

Udalaz gaindiko adierazleak kalkulatzeko aztergai izan ditugun 55 udalen aurrekontu-likidazioei dagozkien datuak erabili dira. Adierazleak eta eskuratutako likidazioen laburpenak, banaka jaso ditugu ondoko lotunean:

<http://www.tvcp.eu/TVCPInfDiagFin/InformeDiagnostico.asp>

III.2.1 ZORPETZE MAILA

JARDUERA	Euroak milakotan					
	ERABILITAKO ZORRA	FINANTZA ZAMA	ZORPETZE MAILA	AURREZKI GORDINA	AURREZKI GARBIA	DG
1. Ura eta saneamendua	85.169	10.814	% 7,82	29.126	18.312	72.882
2. Udal zerbitzuen kudeaketa.....	1.013	2.498	% 6,32	6.077	3.579	7.764
3. Hiriko hondakin solidoak.....	1.404	350	% 0,63	4.529	4.178	11.660
4. Gizarte Ongizatea	108	56	% 0,26	(413)	(469)	4.452
5. Arabako Kuadrillak	120	26	% 0,26	(308)	(334)	2.007
6. Sust. eta iraks., euskara eta lan. prest.....	-	-	% 0,00	(23)	(23)	717
7. Partzuergoak eta baso aprobetxamen.	-	1	% 0,26	177	176	575
8. Suteak itzaltzea.....	150	106	% 3,23	68	(38)	255
9. Garraioak.....	426.469	50.765	% 39,38	54.654	3.889	56.290
GUZTIRA	514.433	64.616	% 16,09	93.887	29.270	156.602

Zorpetzeari buruzko informazioa bihurritu egiten da garraio arloak duen berariazko pisua dela eta; alor hori Bizkaiko Garraio Partzuergoak osatzen du eta udal zorpetzearen % 83a egiten du. Lehenagoko txostenetan azaldutako moduan, erakunde honen bideragarritasuna Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak azpiegituretan egindako inbertsioen finantzaketak sortutako finantza zamari aurre egin ahal izateko egiten dituzten ekarpenen baitakoa dela adierazi behar dugu.

III.2.2 ZORRA ITZULTZEKO BATEZ BESTEKO ALDIA

JARDUERA	Euroak milakotan					
	ZORRA + GOG NEGATIBOA	BATEZ-B. EMAIT.ARR.	KAPITALEKO BAT.B. GASTU GARBIA	ZORRA ITZULTZ. INBERTS.GABE(*)	BAT. BEST. ALDIA INBERTSIOAR.(*)	
1. Ura eta saneamendua	87.103	30.338	35.303	2,87		E/E
2. Udal zerbitzuen kudeaketa.....	1.013	5.189	3.824	0,20		0,74
3. Hiriko hondakin solidoak.....	1.404	5.371	3.613	0,26		0,80
4. Gizarte Ongizatea	171	1.005	452	0,17		0,31
5. Arabako Kuadrillak	120	150	353	0,80		E/E
6. Sust. eta iraks., euskara eta lan. prest.....	-	101	28	-		-
7. Partzuergoak eta baso aprobetxamen.	-	156	67	-		-
8. Suteak itzaltzea.....	153	106	4	1,44		1,50
9. Garraioak.....	426.469	31.955	54.323	13,35		E/E

(*) Ekitaldi kopurua

E/E: Ez da ezargarria adierazlea negatiboa den kasuan.

Bost erakundetan azken hiru ekitaldietako jarduera ohikoak batez besteko emaitza arrunt negatiboak sortu ditu eta horrek inbertsio berriak finantzatzeara eragozten du. Udalaz gaindiko erakundearen finantzaketa egitura kontuan izanik, finantza egoera neurri handi batean asoziatutako erakundearen ekarpenen eskutan dago.

5 erakundeek inbertsiorik gabe zorra itzultzeko 3 urtetik gorako ratioa erakusten dute. Erakunde horiek erakusten dituzten batez besteko inbertsio eta emaitza arruntaren mailek zorra itzultzea eragotzi edo nabarmen geroratzen dute. Nolanahi ere, batez besteko emaitza guztia amortizazio ordainketei aurre egiteko erabiliko balitz, itzulketa aldiak 3 ekitaldiak gaindituko lituzke.

Edozein modutan, udalaz gaindiko erakundearen finantza egitura ez da udalaren antzekoa eta, beraz, finantza egoera kalifikatzeko erabilitako ratioak berberak izan arren, ondorioak eta, batez ere, neurri zuzentzaileak, ezin dira berdinak izan.

Orokorrean, udalaz gaindiko erakundeek finantziarioaren zati handi bat lortzen dute beraz eratzten duten udalek hala gastu arruntetarako, nola inbertsioetarako egiten dizkieten ekarpenen bidez. Hortaz, emaitza arrunt negatiboek adierazten dute erakundearen osatzen duten udalen ekarpenak ez direla aski eta horrek zerikusia izan dezake emandako zerbitzuen tasa eta prezio publikoak kalkulatzeko egin diren hutsekin edo zerbitzu horiek kudeatzeko egin diren okerrekin.

III.2.3 AURREKONTUKO ADIERAZLEAK

III.2.3.1 GASTU ADIERAZLEAK

Hona hemen aurrekontu gastuari buruzko adierazleak biztanleko eurotan emanak eta udalaz gaindiko erakundeek garatzen duten jardueraren arabera sailkatuak:

JARDUERA	Euroak milakotan				
	GASTUA 2008	GASTUA 2009	FUNTZ. GASTUA	FINANTZ. ZAMA	INBERTSIOA
1. Ura eta saneamendua	179.861	187.818	109.192	10.814	67.721
2. Udal zerbitzuen kudeaketa.....	44.665	44.015	33.435	2.498	2.419
3. Hiriko hondakin solidoak.....	51.509	68.932	51.132	350	16.227
4. Gizarte Ongizatea	19.791	22.810	22.074	56	679
5. Arabako Kuadrillak	10.051	11.061	10.434	26	576
6. Sust. eta iraks., euskara eta lan. prest.....	3.442	3.576	3.546	-	30
7. Partzuergoak eta baso aprobetxamen.	686	1.250	335	1	913
8. Suteak itzaltzea.....	3.064	3.552	3.216	106	229
9. Garraioak.....	224.926	231.720	74.261	50.765	106.684
EAE GUZTIRA	537.995	574.734	307.625	64.616	195.478

Orokorrean, 2009ko gastua handitu egin da aurreko ekitaldikoaren aldean, batik batik hiri hondakin solidoen, ura eta saneamenduaren eta garraioaren jardueretara emanak dauden erakundeetan. Igoera hauek gertatu dira, nagusiki, inbertsioa areagotu egin delako hiri-hondakin solidoen jarduerara emanak dauden erakundeetan, funtzionamendu gastuek gora



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

egin dutelako ur eta saneamenduaren jardueran dihardutenetan eta garraio jarduera dutenetan, finantza zama gehitu delako.

Gastu osoaren banaketari dagokionez, uraren banaketa eta saneamendura eta garraiora emanak dauden erakundeetan soilik da inbertsio maila funtzionamendu gastuen pareko. Gainera, jarduera hauek duten izaera inbertitzaile handiak finantza zama izugarria sortzen du, inbertsioei aurre egiteko beharrezkoa duten zorpetzearen ondorioz.

III.2.3.2 INBERTSIOAREN ADIERAZLEAK

Hona hemen inbertsioei eta horien diru-laguntza bidezko finantzaketari buruzko adierazleak biztanleko eurotan emanak eta udalaz gaindiko erakundeek garatzen duten jardueraren arabera sailkatuak:

JARDUERA	Euroak/biztanleko		
	KAPITAL GASTU GARBIAK	EGIAZKO INBERTS.GARBIA	KAPITAL GTU.EN GAIN. % DIRU-LAG.
1. Ura eta saneamendua	28.911	53.996	% 56,82
2. Udal zerbitzuen kudeaketa.....	3.618	2.413	% 33,23
3. Hiriko hondakin solidoak	3.614	4.550	% 63,79
4. Gizarte Ongizatea	213	620	% 67,19
5. Arabako Kuadrillak	202	394	% 66,31
6. Sust. eta iraks., euskara eta lan. prest.....	27	30	-
7. Partzuergoak eta baso aprobetxamen.	112	913	% 87,78
8. Suteak itzaltzea.....	175	229	% 23,73
9. Garraioak	78.194	106.684	% 26,71
EAE GUZTIRA	115.066	169.829	% 40,77

